

Odola ateratzeko, txertoak jartzeko.... (zainak, ikusgarriak behar ditugunean) errazagoa aurkitzeko diren betaurreko infragorriak dira.

Azken finean, urteak badin daramatzazu odola ateratzen eta gainera zahartzen, zailtasun handiagoak edukiko ditu zaina topatzeko. Hori ez gertatzeko, betaurreko hauek momentu batez jarri ditzakegu. Ikasi ondoren praktikan dagoen jendearentzat edota lanean berriak direnentzat, lagungarri egingo zaie.

Betaurreko hauek ez dira denbora luzean jantzita eman behar, hau da, bakarrik odola ateratzeko edo zaina aurkitzeko garaian erabiliko ditugu. Urte askotara, begi bistarako kaltegarria bihurtu daiteke

Balore kualitatiboa:

Kalitate oneko materialak erabiliz. gure bezeroaren begiak ondatu gabe erabilgarria den betaurrekoak. Betaurreko hauen montura, metalezkoa izango da, hala, arinak, gogorak eta diskretuak izango dira. Monturaren kolorea hasiera batean, kolore metalikoa (grisa) izango da, baina eskaera espeziala izatekotan bezeroaren gustura egin daiteke monturaren kolorea.

Kristalak aldiz, ezberdinak izango dira beste betaurrekiko, hala nola, beirazko kristaletan argi infragorria sortzen duen konposatua txertatuko da. Kristalak, 5cm zabaleran eta 3 luzeran izango dira. Gainera, kristalak pulituak egongo dira eta hauen punta normala izango da. Bestalde, betaurrekoak babesteko hauen funda, erresistentzia handikoa izango da, gainera kristalak garbitzeko algodoizko zapi bat eramango du.

Balore kuantitatiboa:

Prezioa kostu baxukoa izango da. Lehen eskuko produktuak kalitate onekoak izango dira, batik bat, monturaren kristalak Nikelezkoak izango dira. Gutxi gora behera, nikelak gramoko 2\$ balio du. Makinariaren segurua eta erabilerak produktu kantitatearen arabera izango da. Montura egiteko denbora gutxi erabiliko da, baina kristalen materialak lantzea gehiago iraungo dugu. Kristalak berez, aurretik jarritako tamainarekin 24\$ balio ditu. Horrez gain, konpostatu infragorria txertatu behar zaio makinaria batekin beraz kristalen prezioa guri 40\$ ahal zaizkigu atera.

Funda eta garbitzeko zapiak "pack" batean datoz dohainik. Makinariaren errebisioak egitea eta ondatzen direnean konpontzeak ere dirua dakar, beraz onurak izateko 100\$ balioko dituzte.